

# Abarak

UNAI BREA

## Kazetari konprometituaren alde

*Contra la neutralidad.* Pascual Serrano.  
Península argitaletxea, 2011. 271 orrialde.

PASCUAL SERRANO (Valentzia, 1964) hedabideen analisian espezializatutako kazetaria da. Interneteko *Rebelión* agerkariaren sortzailea da, eta gaur egungo kazetaritza ikuspegi kritikoz aztertzen duten hainbat saiakeraren egilea. *Contra la neutralidad* (Neutraltasunaren aurka) liburuan, eraso egiten dio kazetaritza distantziakidearen ideiarri. Lanbide honen patuaz hainbeste hitz egiten ari den honetan, Serranok saihestu egin du negozio eredu eta euskarri berriei buruzko eztabaida, eta ofizioaren muin-muina doa zuzenean: zertaz eta nola mintzatu behar dira kazetariak?

Kausa baten alde egiten duen kazetaritzaren balioa defendatzeko, egileak XX. mendeko bost periodista handiren biografiak bildu ditu, labur bada ere. John Reed, Ryszard Kapuściński, Rodolfo Walsh, Edgar Snow eta Robert Capa, gertu-gertutik bizi izandako

*Loyalist militiaman at the moment of death,* Robert Caparen argazki ezagunena.



gatazken berri eman zuten bostek, lehen laurak elean bitartez eta irudiekin bosgarrenak, eta denek egin zuten bat gatazka horietan ziren alderdietako batekin; baina Serranoren ustez ez zuten horregatik kazetaritza traketsa egin, kontrakoa baizik: haien lanak ez die ezer zor zehaztasunari. Aldiz, gaur egun nekez aurkitzen den osagaia dute haien kronikek, liburuek, argazkiek: bihotza. *Contra la neutralidad*-en tesi nagusia da era horretan egindako kazetaritza askoz tresna hobea dela mundua ulertzeko, etengabe ustezko erdigune baten bila ari dena baino. ■



hizkuntza  
ELHUYAR  
zerbitzuak



Elhuyarren smartphoneetarako aplikazioa euskara ikasteko

**Ikasi euskara**  
**Aprende euskera**  
**Learn Basque**  
**Apprenez le basque**

Nabigaziorako hizkuntzak:  
gaztelania, ingelesa eta frantsesa.



Salgai 3 €-an.  
Deskargatu doako demoa.

Ikasi euskarazko oinarrizko hiztegia:

- Ohiko egoeretan euskaraz komunikatzeko tresna.
- Entzuteko ariketak, mintzatzeko ariketak eta irakurri eta idazteko ariketak.

[www.elhuyar.org/kxo!](http://www.elhuyar.org/kxo!)

